



27. zenbakia / 2009ko abendua

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

BAT ALDIZKARIA 72 ZENBAKIA KALEAN

BAT aldizkariaren 72. zenbakia *Zein hizkuntza hitz egiten du komunikazio gizarteak?* kaleratu du Soziolinguistika Klusterrak. Zenbakiak 2009ko ekainean Donostian buruturiko izenburu bereko [EHUko Udako Ikastaroan](#) oinarrituriko lanak biltzen ditu. Aldi berean, 71. zenbakiari jarraipena eginez Kontseiluko Iñaki Lasak *Txillardegiri* eskainitako artikulu bat ere argitaratzen du. Gainera, GUREAN atalean, Roberto Manjónen eta Iraia Saenz de Biteriren lan bana ere bildu ditu.

Beraz, aldizkariak eskaintzen dituen lanak honakoak dira:

- Hitzaurre gisa. **Asier Basurto.**
- Eskerrik asko, lagun! **Iñaki Lasa.**

DOSSIERRA - Zein hizkuntza hitz egiten du komunikazio gizarteak?

- *Asaba zaharren baratzetik mundu arranora. Euskararen komunikazio-esparrua aro globalean.* **Aitor Zuberogoitia.**
- *Talde nortasunak eta komunikabideak.* **Josu Amezaga Albizu.**
- *Hizkuntza-identitateak identitate berrien baitan – Mahai-ingurua.* **Jon Sarasua, Josu Amezaga, Igor Calzada, Pablo Suberbiola.**

GUREAN

- *Euskararen jarraipena eta azpiegitura handiak Euskal Herrian.* **Roberto Manjón Lozoya.**
- *Euskararen irakaskuntza eta blogosfera.* **Iraia Saenz de Biteri**

EUSKO IKASKUNTZAREN XVII. KONGRESUAN SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAK PARTE HARTU ZUEN

2009ko azaroaren 18, 19 eta 20an Gasteizen ospatutako Eusko Ikaskuntzaren XVII. Kongresurako Soziolinguistika Klusterrak bi saio prestatu zituen *Hizkuntzen ekologia eta garapen iraunkorra* gaiaren inguruan, [Globalizazioa](#) ardatzean kokatuta.

Lau urtez behin egiten den kongresuak, aurtten, *Gizarte aurrerapen iraunkorrerako berrikuntza* izan du gai orokor modura.

Saioak azaroaren 19an izan ziren, eta bertan honako hizlariak hartu zuten parte:

- *Hizkuntza aniztasuna ukitu ezin den ondare preziatua zaindu eta garatzeko UNESCOren ekimenak.* [Itziar Idiazabal](#) (EHU).
- *Hizkuntzen ekologiaren diskurtsoa eta euskara: egungo egoera eta etorkizuneko aukerak Soziologiaren ikusmiratik.* [Iñaki Martínez de Luna](#) (EHU)
- *Eredu baten premia edo Inprobisazioaren erabilera vs Erabileraren inprobisazioa.* [Txema Abarrategi](#) (Fagor Etxetresna Elektroak).
- *Kutxaren esperientzia hizkuntza kudeaketan, testuinguru globalizatu batean.* [Mikel Irizar](#) (Kutxa).
- *Proposamen ekolinguistikoak nazioartekotzerako.* [Abel Irizar](#) (Emun Koop. E.).
- *Makina erreminta sektoreko eragileen segmentazioa, balio eta gizarte-portaeren arabera, euskarazko produktuak / zerbitzuak sustatzeko.* [Daniel Hermosilla](#) (EHU).

Informazio gehiago: <http://www.soziolinguistika.org/eu/node/4000>

HAUSNARTU – EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIEN II. DEIALDIA ERABAKITA

Hausnartu – Euskal Soziolinguistika Sarien helburu nagusia euskal soziolinguistika teorikoaren eta metodologikoaren garapena eta berrikuntza da. Asmoa da euskal soziolinguistikarekin harreman zuzena duten ikerlarien lana bultzatzea, eta beste hainbat ikerlari ere euskal soziolinguistikaren eremura biltzea, modu horretan hizkuntzaren eta soziolinguistikaren inguruko ikerketen oinarri teorikoak zabaldu eta aberastuko baitira.

Aurten bigarren edizioa burutu da, eta erabakia epai-mahaiaren bileran hartu zen, 2009ko abenduaren 18an. Bertan parte hartu zuten **Pello Jauregi** Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko pedagogiako irakasleak; **Iñaki Martínez de Luna** EHuko irakasle eta BAT Soziolinguistika aldizkari argitalpen batzordekideak; **Estibalitz Alkorta** Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendariak eta **Igor Calzada** Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Koordinaziorako Zuzendariak.

Hartutako erabakiaren arabera honako lanak saritu ziren:

Lehen saria, 1.000 €. *Argiak eta itzalak euskararen lurraldean. Euskararen etxean, gazi-gozo.* Egilea: **Dabid Anaut**

Bigarren saria, 700 €. *Teoria ekonomikoaren ekarpenak soziolinguistika alorrean.* Egilea: **Jose M. Zendoia Sainz**

Hirugarren saria, 500 €. *Hizkuntza-plangintzekiko errisistentziak organizazioetan.* Egilea: **Urtzi Barrenetxea Iparragirre**

HAUSNARTU - EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIEN SARI-BANAKETA 2010eko otsailaren 26an burutuko da, Soziolinguistika Klusterrak antolatuko duen Euskal Soziolinguistika III. Jardunaldian.

Informazio gehiago: <http://www.soziolinguistika.org/eu/node/4381>

EKIMENAK ETA KANPAINAK

NAFARROAKO GOBERNUAK BURUTURIKO EUSKARAZKO LAGUNTZEN MURRIZKETEN AURREAN EKIMENA

[Berria.info]

Nafarroako Gobernuak euskarazko hedabideei diru iturria guztiz itxi diela eta, Sakanako 'Guaixe' aldizkaria eta Beleixe irratia egoera larrian daude. Zorra kitatzeko itsulapikoak jarri dituzte.

Informazio gehiago: Berria.info: http://paperekoa.berria.info/harian/2009-12-30/012/007/Itsulapikoetako_diruaren_zain.htm

Argia: <http://www.argaia.com/albisteak/sakandar-1-euro-1-20000-baietz>

ARABAKO ALDUNDIAK EUSKARAREN LEHEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTU DU

[Euskaraba.com]

Diputatu Nagusiorde Claudio Rodríguezek eta Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatu Lorena López de Lacallek Euskararen Plan Estrategikoa (2010-2013) aurkeztu dute, zeina Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak onartu duen gaur egindako bilkuran. Plana abiaraztearen arrazoi nagusia izan da Arabako euskararen normalizazioan eragiteko baliabide batez hornitzea.

Arabian garatutako planak hiru jomuga nagusi ditu: hizkuntz eskubideak bermatzea, euskararen gizarte erabilera bultzatzea, eta koordinazio eta lankidetzak ekimenak lantzea. 1.039.978 euroko aurrekontua du horretarako. Arabako zazpi kuadrillez gain, Trebiñu ere planaren barruan sartu dute.

Informazio gehiago:

<http://www.euskaraba.com/euskara/albisteak/aldundiak-euskararen-lehen-plan-estrategikoa-onartu-du>

<http://www.argaia.com/argaia-astekaria/2212/normalizazioa/osoa>

INSTITUT D'ESTUDIS CATALANS-EK EUSKALTZAINDIAREN ETA REAL ACADEMIA GALEGAREN KIDE BANA AKADEMIKO IZENDATU DITU

[Euaskaltzaindia.net]

Abenduaren 23an eginiko batzarrean, Institut d'Estudis Catalansek Euskaltzaindiaren eta Real Academia Galegaren kide bana onartu zituen akademiko urgazle gisa, erakunde horren Secció Filològica barruan. Euskaltzaindiari dagokionez, Andres Urrutia euskaltzainburua izendatu dute urgazle, eta Academia Galegaren kasuan, Manuel González idazkaria.

Informazio gehiago:

http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_content&Itemid=1&catid=121&id=623&lang=eu&view=article

ITZULTERM, ITZULPEN-MEMORIEI ETEKINA ATERATZEKO DOAKO WEB-ZERBITZUA JARRI DU SAREAN ELHUYAR FUNDAZIOAK

[Elhuyar Fundazioa]

Elhuyar Fundazioko I+G+B unitateak garatu du tresna eta erabiltzaileak aukera izango du itzulpen-memoretatik lexiko elebiduna erazteko.

Elhuyar Fundazioko I+G+B unitateak ItzulTerm web-zerbitzua sareratu berri du, itzulpen-memoria batetik euskarazko eta gaztelarazko termino baliokideen bikoteak automatikoki erazten dituen doako zerbitzua. Itzulpen-memoriekin lan egiten duten erabiltzaileengan dago, batik bat, pentsatua: itzultzaileak, itzulpen-zerbitzuak, terminologoak, hizkuntzalariak, euskara-teknikariak.

Informazio gehiago: <http://www.elhuyar.org/EU/Prensa-oharrak/ItzulTerm-itzulpen-memoriei-etekina-ateratzeko-doako-web-zerbitzua-jarri-du-sarean-Elhuyar-Fundazioak>

GAZTELANIA-EUSKARA ITZULTZAILE AUTOMATIKO HOBETUA AURKEZTU DUTE

[Eleka ingeniari-tza linguistikoa]

Eleka enpresak Matxin gaztelania-euskara itzultzaile automatikoaren bertsio hobetua garatu du. Elhuyar Fundazioarekin eta EHUko IXA taldearekin elkarlanean garatu da itzultzaile automatikoaren bertsio hobetua.

Bost urte pasa dira Eleka Ingeniaritza Linguistikoa, SL Galiziako eta Herrialde Katalanetako enpresa eta unibertsitateekin batera Opendrad kode irekiko itzulpen automatikorako plataforma garatzen hasi zenetik (www.opendrad.com). Matxin gaztelania-euskararen bertsio hobetua Opendrad plataformaren parte da, eta bertan itzulpen automatikoko teknika ezberdinak erabili dira.

Informazio gehiago:

<http://www.eleka.net/berriak/berria.php?id=eu&a=1&b=1260881706>

<http://www.eitb.com/albisteak/osoak/314360/gaztelania-euskara-itzultzaile-automatiko-hobetua-aurkeztu-dute/>

ALBISTEAK

NETLE NAFARROAKO EUSKARA TEKNIKARIEN LANBIDE ELKARTEAK NAFARROAKO EUSKARA ZERBITZUEN EGOERA ITOGARRIA SALATU DUTE

[Berria.info]

Krisi ekonomikoa aitzakia modura hartuta UPNren Nafarroako Gobernuak euskararen mundua itotzeko lasterketan sartu dela salatu dute NETLE Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkarteko hogeita bederatzita bazkideek. Diru-laguntzen beherakada ez da orain-oraingoa, 1998tik 2005 eta bitartean diru-laguntza horiek erdira jaitsi baitira, eta harrez gero bide hori etenik gabe jarraitu baitu.

Informazio gehiago: http://paperekoa.berria.info/iritzia/2009-12-22/005/008/Nafarroako_euskara_zerbitzuak_itolarrian.htm

EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOAK IAZ BAINO 360.000 EURO GEHIAGO ESKURATUKO DITU 2010. URTEAN

[Kazeta.info]

Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) agerraldia egin zuen 2010-2016 epean garatu beharreko hizkuntz proiektua azaltzeko. EEPren aurrekontua ziurtatzeko -estatua, eskualdea eta departamendua- iaz baino 120.000 euro gehiago ezarriko dute 2010ean. Ondorioz, EEPren aurrekontua 360.000 eurotan handituko da. Bestalde, jakitera eman da Frantxua Maitia eskualdeko kontseilari sozialista izanen dela Euskararen Erakunde Publikoaren lehendakari berria.

Informazio gehiago: <http://www.kazeta.info/euskalherria/euskararen-erakunde-publikoak-iaz-baino-360000-euro-gehiago-izanen-ditu-2010ean>

NAFARROAKO GOBERNUAREN AURREKONTUAK EUSKARAREN NORMALIZAZIOAN OZTOPO IZANGO DIRELA SALATU DU KONTSEILUAK

[Erabili.com]

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua biziki kezkatuta dago euskararen normalizazioak Nafarroan daraman bidearekin. Hori azaltzeko, agerraldia egin zuten atzo (2009-12-14) Kontseilua osatzen duten hainbat eragileetako ordezkariak. "Euskara normalizatzeko beharrezkoa den hizkuntza-politika eragingarria baztertu eta euskal hiztunen hizkuntza-eskubideak sistematikoki zapaltzea ahalbidetzen duen politika du indarrean UPNren Gobernuak", azaldu zuen Iñaki Lasak, Kontseiluko ildo politiko-instituzionaleko arduradunak.

Informazio gehiago: http://www.erabili.com/zer_berri/berriak/1260863941

IRITZIAK – ELKARRIZKETAK - ARTIKULUAK

Estebe Eiherabide EEPko zuzendaria, Ione Josie Kontseiluko Iparraldeko arduraduna, Jakes Bortairu AEK-ko Ipar Euskal Herriko arduraduna eta Hur Gorostiaga Seaskako zuzendaria mahai-inguruan *Legeari beha, hizkuntzaren geroa hizpide*

http://paperekoa.berria.info/harian/2009-12-29/002/001/Legeari_beha_hizkuntzaren_geroa_hizpide.htm

Battitu Coyos Frantses Akademia eta Euskaltzaindia: bi ikuspegi desberdin

http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1260431578

Joxe Manuel Odriozola. Hizkuntza partekatzea

http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1258708298

Yolanda Ruiz de Zarobe. Es un mito que haya gente con un talento natural para aprender lenguas.

<http://www.noticiasdegipuzkoa.com/ediciones/2009/07/16/sociedad/gipuzkoa/d16gip10.1541461.php>

Jean Paul Bronckart. Hizkuntza bat baino gehiago erakusteko muga bakarra baliabide falta da.

<http://paperekoa.berria.info/harian/2009-09-18/013/004/%C2%ABHizkuntza bat baino gehiago erakusteko muga bakarra baliabide falta da%C2%BB.htm>

ARGITALPEN GOMENDATUAK

HABE Liburutegiak eskuratu berriak

Emili Boix-Fuster Josep Manel Ballarín: [*Els futurs del català : un estat de la qüestió i una qüestió d'estat*](#)

Christian Lagarde : [*Identité, langue et nation : qu'est-ce qui se joue avec les langues?*](#)

Mike Baynham James Collins Stef Slembrouck : [*Globalization and language in contact : scale, migration, and communicative practices*](#)

EUSKALTZAINDIA

Joan Mari Torrealdei - Imanol Murua Uribe: [*EUSKALTZAINDIA ekin eta jarrai*](#)

Miquel Gros i Lladós: [*El euskera en la Comunidad Autónoma Vasca \(2009\). Una apuesta por la diversidad lingüística*](#)

